



**2016KO AZAROAREN 4KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko azaroaren lauan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Mariari Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2016ko urriaren 21ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 85 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMASEI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EURO ETA BAT ZENTIMO (36.490,01 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- JOXEMIEL BARANDIARAN KIROLDEGIAN HANDITZEAREN ERABILERA ANITZEKO GELAREN, ZIKLO INDOOR GELAREN ETA GIMNASIOAREN KLIMATIZAZIOARI DAGOKION INSTALAZIOA EGITEKO ETA MARTXAN JARTZEKO OBRA LANEN LIKIDAZIOA.-

Joxemiel Barandiaran kiroldegian handitzearen erabilera anitzeko gelaren, ziklo indoor gelaren eta gimnasioaren klimatizazioari dagokion instalazioa egiteko eta martxan jartzeko obra lanen obra zuzendaritza daraman udal arkitekto teknikoak, 2. eta likidazioa den obra egiaztatzea luzatu du. Obra egiaztatzea hau BERROGEITA HAMASEI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA BOST EURO ETA HAMAR ZENTIMOTakoa (56.285,10 €) da. Lanak ICELAN Instalaciones y Sistemas S.L.k burutu ditu.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztatzea hau aztertu ondoren, aho batez, berau onartzea erabakitzen du.

IV.- UDAL LANGILEEN ABENDUKO EZOHIKO ORDAINSARIA AURRERATZEA.-

Estatuaren gobernuak, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Dekretu legearen bidez, administrazio publikoetako langileen soldatak %5ean jeitsi arazi zituen.

Hurrengo urteetan berriz, langileen ordainsariak igotzea debekatu egin zuen, ari gareneko 2016 urtean izan ezik, hontan gehienezko %eko 1 eko igoera baimendu du.



Hau guztia honela, eta erabaki hauek udal langileen ordainsarietan eragindako kaltea nolabait ere leuntze arren, 2016ko abenduko ezohiko ordainsari ordainketa aurreratzea planteatzen da.

Era berean datorren urteko, ekainean eta abenduan ordaindu ohi diren ezohiko ordainsariak, urtarrila eta ekainera aurreratzea planteatzen da, eta hori urtero horrela egitea, soldatak igotzeko debeku horrek irauten duen bitartean.

Aran zinegotziak (EH bildu) erabaki hau legezkoa al den galdetzen du.

Idazkariak erantzuten dio legez kanpoko ez dela.

Aran zinegotziak esaten du beraiek abstenitu egingo direla.

Proposamena bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), udal langileen abenduko ezohiko ordainketa aurreratzea erabakitzen du. Halaber, datorren urteetarako eta ordainsarien igoerarako debekuak jarraitzen duen bitartean, urteko ezohiko ordainketak urtarrilera eta ekainera aurreratuko direla erabakitzen da.

V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kirol taldeei diru laguntzak emateko Kirol Batzordetik aurkeztutako proposamena aztertu da.

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du alde bozkatuko dutela baina jakin nahiko luketela beste herrietan nola egiten den banaketa hau eta kiroletako diru laguntzak banatzeko modua begiratzekoa dela iruditzen zaiela eta datorren urterako aztertzea nahiko luketela.

Alkateak erantzuten dio ondo iruditzen zaiola begiratzea eta aztertzea.

Guzti hau honela, proposamena bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartzen ditu:

- Kirol taldeei diru laguntzak.- Herriko kirol talde ezberdinei, 2016ko jarduketagatik, ondorengo diru laguntzak ematea:

KIROL TALDEA	ZENBATEKOA
Futbol taldea	13.742 €
Pelota taldea	1.566 €
Igeriketa taldea	752 €
Atletismo taldea	705 €
Mendizale taldea	855 €
Txirrindulari Elkarte	799 €
Antzar Korrikalari taldea	787 €
GUZTIRA	19.206 €

VI.- BILERAREN AMAIERA.-



LAZKAOKO
UDALA

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA